

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizitza Independente Programaren Ebaluazioaren emaitzak¹

Mikel Malcorra Otxotorena

Elkartu - Gipuzkoako Ezgaitasun Fisiko Duten Pertsonen Federazioa
mikel@elkartu.org

Rakel Oion Encina

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Rosa Ugalde Urbistondo

Elkartu - Gipuzkoako Ezgaitasun Fisiko Duten Pertsonen Federazioa
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Gipuzkoan Bizimodu Independentearen Programa onartu zenetik ia 20 urte igaro dira, eta desgaitasunaren arloko arauen eta politiken bilakaera kontuan hartuta, beharrezkotzat jo da programa ebaluatzea. Horretarako, alderdi orokorrak (parte-hartzaileen profilaren ezaugarriak, sarbidearekin, parte-hartzearekin eta Programaren garapenean izandako gorabeherekin lotutako gaiak), sozialak (gizarteratze-mailaren azterketa), psikosozialak (ongizate emozionalean eta desgaitasuna duten pertsonen ahalduz eragiten duen modua) eta ekonomikoak (inbertsio publikoaren errentagarritasun ekonomikoa) jorratu dira. Ebaluazioak aukera eman du programak hasieran planteatutako helburuak lortzen zer neurritan lagundu duen aztertze eta ondorioztatze, bai eta desgaitasunaren arloko foru-politikak Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren eskakizunetara erabat egokitzeko hobekuntza-neurriak zehazteko ere.

Gako-hitzak:

Bizitza independentea, desgaitasuna, ebaluazioa, politika publikoak, gizarte-inbertsioaren itzulera (SROI).

Transcurridos prácticamente veinte años desde la aprobación del Programa de Vida Independiente en Gipuzkoa y teniendo en cuenta la evolución de las normas y las políticas en materia de discapacidad, se ha estimado necesario llevar a cabo una evaluación de este. Para ello, se han abordado aspectos generales (caracterización del perfil de las personas participantes, así como cuestiones vinculadas con su acceso, su participación y las incidencias en el desarrollo del programa), sociales (análisis del grado de inclusión social), psicosociales (manera en que incide en el bienestar emocional y el empoderamiento de las personas con discapacidad) y económicos (rentabilidad económica de la inversión pública). La evaluación ha permitido analizar y concluir en qué medida ha contribuido el programa a alcanzar los objetivos inicialmente planteados, así como determinar las medidas de mejora correspondientes para alinear plenamente las políticas forales en materia de discapacidad con los requerimientos de la Convención sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad.

Palabras clave:

Vida independiente, discapacidad, evaluación, políticas públicas, retorno social de la inversión (SROI).

¹ Edición en castellano: <<https://doi.org/10.5569/1134-7147.81.04.es>>.

1. Sarrera

Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa 2006ko abenduaren 13an onartu zen New Yorken, eta bertan aitortzen da desgaitasuna duten pertsonen eskubidea dutela beren bizilekua eta non eta norekin bizi diren aukeratzeko, gainerako baldintza berberetan, eta ez dutela zertan bizi bizi-sistema espezifiko baten arabera. Konbentzioak aitortutako eskubide hori landua izan zen jada Gipuzkoan, bi urte lehenago, Bizitza Independenteterako Programa modu esperimentalean ezartzearen bidez. Programa horren helburua zen etxean bizitza independentea erraztea, laguntza ekonomikoak emanez, desgaitasuna duten pertsonen beren etxean bizi ahal izan daitezen, beren premietan arreta ematen dieten pertsonen laguntzarekin.

Gipuzkoan Bizitza Independenteterako Programa onartu zenetik ia 20 urte baino gehiago igaro dira, eta nazioarteko, estatuko, autonomia-erkidegoko eta foru-erkidegoko desgaitasun-arloko arauen eta politiken bilakaera kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da programaren ebaluazioa egitea. Horri esker aztertu eta ondorioztatu ahal izango dugu zein neurritan lagundu duen hasieran planteatutako helburuak lortzen, eta zehaztu ahal izango da zer neurri hartu behar diren desgaitasunaren arloko foru-politikak Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren eskakizunetara lerrokatzeko.

Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Lan Harremanak eta Gizarte Langintza Fakultateko, Psikologia Fakultateko eta Ekonomia Fakultateko hamahiru ikertzailek², elkartuk (Urritasun Fisikoa Duten Pertsonen Gipuzkoako Federazio Koordinatzailea) parte hartzen dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren laguntzarekin. Ikerketa-proiektuaren eta, bereziki, Bizitza Independentearen ereduaren eskura jartzen dute haren ezagutza eta esperientzia, pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatuko duten politika publikoen diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa bultzatzeko, ezagutzaren eremuen, hirugarren-sektore sozialaren eta instituzionalaren arteko lankidetzatik abiatuta. Era berean, eta proiektuaren inspirazio-iturri den Bizitza Independentearen ereduarekin bat etorriz, desgaitasuna duten pertsonen bere funtsezko zeregina bete dute ebaluazioa osatzen duten ekintzetan, eta beren esperientziak, balorazioak eta proposamenak aurkeztu baitituzte, desgaitasuna duten

² Elkartuk eta UPV/EHUk osatutako ikerketa-taldea hamahiru pertsonak osatu dute: Elkartuko bi, Mikel Malcorra eta Rosa Ugaldde —UPV/EHUko irakasle elkartua ere bada—, eta Euskal Herriko Unibertsitateko hamaika, hiru fakultateri lotuta: Lan Harremanen eta Gizarte Langintzaren Fakultatek Rakek Oion, Amaia García, Amaia Inza, Amaia Izaola, Ane Izaguirre, Psikologia Fakultatek Eneko Sansinenea, Ainize Sarrionandia, Iñaki García Fernández eta Luixa Reizabal, eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatek Irati Labaien eta Alberto Díaz de Junguitu. Akordioaren betearazpenaren jarraipena egiteko, UPV/EHUren eta ikerketa-taldearen ordezkarri gisa Soziologia eta Gizarte Lan Saileko Rakek Oion Encina aritu da, eta Elkarturen ordezkarri gisa Mikel Malcorra.

pertsonen autodeterminazio-eskubidean oinarritzen den programa batean parte hartzean oinarrituta.

Artikuluak honako eduki hauek garatzen ditu: alde batetik, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independenterako eskubideari buruzko sarrera, 2006ko Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko foru-araudian jasoa, zehazki, bizimodu independentea sustatzeko laguntzak arautzen dituen 87/2008 Foru Dekretuan. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizimodu Independentearen Programaren ebaluazioaren helburuak eta ikerketa-esparruak, hala nola soziala, psikologikoa eta ekonomikoa. Metodologiaren berri ere eman da, ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatzen dituen, dagoeneko baliozkotutako eta erabilera zientifiko eta politiko zabala duten hainbat galdera eta ebaluazio-tresna erabiliz. Jarraian, emaitza nagusiak eskaintzen dira gizarteratze-mailari, osasun mental positiboari eta inbertsioaren errentagarritasunari dagokienez, bai eta emaitzei buruzko genero-azterketa eta parte-hartzaileek adierazitako balorazio kualitatiboari ere. Azkenik, ebaluazio-ikerketaren ondorio nagusiak laburbildu dira, bizitza independentea izateko eskubidea bermatzeko programak dituen eragin mesedegari eta hutsei dagokienez, eta zenbait gomendio eman dira, desgaitasuna duten pertsonen eskubide horren inguruko politika publikoaren plangintza orientatzeko.

2. Bizitza independenterako eskubidea Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan

2006ko Ezgaitasuna Duten Pertsonen Nazioarteko Konbentzioaren funtsezko helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek beren giza eskubideak eta askatasuna erabat eta berdintasunez izango dutela sustatzea, babestea eta ziurtatzea, baita haien duintasunarekiko errespetua bultzatzea ere (1. art.). Bizitza Independenteari dagokionez, 19. artikulua desgaitasuna duten pertsonen modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartuta egoteko duten eskubidea aitortzen du. Bestetik, Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideei buruzko Komiteak, Konbentzioaren aplikazioa ikuskatzen duen aditu independenteen organoak, bere 5. Ohar Orokorrean, modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubideari buruz, Konbentzioaren 19. artikuluan aurreikusitako kontzeptuak argitu eta garatzen ditu, eta, horrela, estatuei ezartzen zaizkien betebeharrak betetzen laguntzen die.

Konbentzioaren eta 5. Ohar Orokorrean edukiaren arabera, bizitza independentea honela defini daiteke: desgaitasuna duten pertsonen komunitatean bizitzeko beharrezkoak diren laguntza guztiak jasotzeko duten eskubidea, beren bizitzan gaineko erabakiak eta kontrola hartzeko, eta eragiten dieten hautu guztiak egiteko —bereziki, nola, non eta norekin bizi nahi

duten—, gainerakoen kondizio beretan; hau da, ez daitezela behartuta egon bizimodu jakin baten arabera bizitzera. Beraz, Bizitza Independenteterako Eskubideak honako alderdi hauek biltzen ditu: bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duten hautatzeko aukera, bizimodu jakin baten arabera bizitzera behartuta egon gabe; eurek hautatutako laguntzak izatea, pertsonalatuak eta malguak, beren izatea eta komunitateko bizitza erraztekoak; eta irisgarritasun unibertsaleko nahitaezko kondizioak betetzen dituzten instalazio eta komunitateko zerbitzuak eskuragarri izatea.

Hortik ondorioztatzen da bizitza independenteterako eskubidea dimentsio bikoitz batek osatzen duela: dimentsio indibiduala (modu independentean bizitzeko eskubidea), norberaren emantzipazioarako eskubide gisa, irisgarritasun eta aukerak ukatu gabe, eta dimentsio soziala (komunitateko kide izateko eskubidea), ingurune inklusiboak sortzeko eskubide gisa.

3. Bizitza Independenteterako Programa Gipuzkoan

Otsailaren 24ko 11/2004 Foru Dekretuak, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako banakako laguntzak arautzen duenak, berrikuntza bat dakar: etxean bizimodu independentea egiteko laguntza ekonomikoa. Horrela, Gipuzkoa aitindaria da bizimodu independentearen ereduak sustatzen. Foru Dekretuak berak adierazten duen bezala:

Etxeko autonomia laguntzeko programa esperimentalak antolatatu dugu, bizitza burujabe baten filosofiaren ikuspegitik. Ereduzko programa bat bada ere, aurrera begira pertsona ezinduei laguntzeko programa garrantzitsu gisa begira sendotu nahi den horren oinarriak jartzen ditu, horrek administrazioan ekar dezakeen pentsamolde aldaketarekin. [...] Esperientzia bukatzen denean, emaitzen balorazioa egingo da eta, horien arabera, programa zabalago eta zehatzago arautuko da (4118. eta 4124. or.).

Programa esperimentalak legezko onarpena eta erregulazioa jasotzen du abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuaren bidez. Dekretu horren bidez, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean Programako banakako laguntzak arautzen dira. Bertan, diruz lagundu daitezkeen laguntza-moten artean, honako hauek aipatzen dira: "egoitza-baliabideak erabiltzea baztertu eta bakarrik edo beren familia osatuta bizitzea aukeratzeko duten 18 urtetik aurrerako pertsonentzako bizimodu independentea egin ahal izateko laguntzak" (2a art.).

Programak etxebizitza eskuratzeko baldintza batzuk ezartzen ditu. Horien artean, etxebizitza egokia izatea ezartzen da, erabilera pertsonalerako, edozein tituluren pean —prekarioa izan ezik—, laguntza pertsonalerako azpiegitura nahikoa izatea, arreta- eta segurtasun-

premien gutxieneko estaldura bermatzeko, edo bideragarritzat jotzen den bizimodu independenteko proiektu bat aurkeztea. Prestazioaren zenbatekoa honela zehazten da: eskatutako laguntza-orduen kopurua finkatuz, ondoren ordu horien kuantifikazio ekonomikoa eginez eta eskatzaileak helburu bererako edo antzeko baterako jasotzen dituen laguntza publiko guztiak murriztuz. Era berean, ezartzen da laguntzaren gehieneko zenbatekoak ez duela inola ere gaitutako eskatzailearen antzeko premiak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzu baterako ezarritako gehieneko prezioa.

4. Bizitza Independentearen Programaren ebaluazioaren helburuak eta esparruak

Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioaren helburua da bizitza independentearen ereduari buruzko ezagutza eta ikerketa bultzatzea, bai eta Gipuzkoan bizitza independentearen ereduak sustatzeko informazio zorrotza eskaintzea ere. Hortaz, ikerketa ebaluatzaileak honako xede hauek ditu: desgaitasuna duten pertsonen bizitza independenteterako eskubideari dagokionez, testuinguru sozialean eta legalean izandako aldaketak deskribatzea; programak hasieran proposatutako helburuen lorpen-maila ebaluatzea; parte-hartzaileek lortutako gizarteratze-maila aztertzea; parte-hartzaileen ongizate emozionalaren eta ahalduentzaren maila aztertzea; programaren errentagarritasun ekonomikoa aztertzea; programa bultzatzeko beharrezkoak diren hobekuntza-eremuak edo jarduerak zehaztea, Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioarekin bat etorriz.

Programaren eragina hainbat ikuspegitatik aztertzeko, ikerketak honako esparru hauek jorratzen ditu: alderdi orokorrak (parte-hartzaileen profilararen ezaugarriak zehaztea, baita Bizitza Independenteterako Programaren garapenean sartzearekin, parte hartzearekin eta gorabeherekin lotutako gaiak ere); gizarte-alorra (bizitza independentearen ereduak eskaintzen duen gizarteratze-maila aztertzea); alor psikologikoa (bizitza independentearen ereduak desgaitasuna duten pertsonen ongizate emozionalean eta ahalduentzaren nola eragiten duen egiaztatzea); eta alor ekonomikoa (bizitza independentearen ereduaren errentagarritasun ekonomikoa aztertzea, baliabide publikoen eraginkortasuna eta efizientzia bermatzeko modu gisa).

Halaber, ebaluazioak Programaren emaitzak azaltzen ditu genero-ikuspegi eta -analisi batetik, parte-hartzaileen balorazioan sakontzen du kualitatiboki, eta Bizitza Independentearen Programa sendotzen, bultzatzen eta garatzen esku hartu behar duten eragileei zuzendutako proposamen eta gomendio batzuk adierazten ditu.

5. Bizitza Independente Programa ebaluatzeko metodologia

Ikerketaren ikuspegia metodologia mistoa da, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartzen baititu. Informazioaren teknikak eta tratamendu estatistikoak rol nagusia izan badute ere, ezinbestekoa izan da elkarrizketak egitea, bai emandako datuak argitzeko eta osatzeko, bai kideek programaren balorazioa ezagutzeko.

Ikerketa hasi zenean, 27 pertsona ari ziren parte hartzen Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturako Bizitza Independenteterako Programan, aurreko urte batzuetan baino gutxiago, heriotzagatiko bajen ondorioz. Hain populazio txikiarekin probabilitate-lagin bat erabiltzea ezinezkoa denez (kalkulatuz gero, 25 subjektoren parte-hartzea beharko zatekeen), probabilitaterik gabeko lagin bat hartu da. Ikerketan sartzeko irizpidea ikerketa unean Bizitza Independenteterako Programako parte-hartzailea izatea izan da. Parte-hartzea borondatezkoa izan da: 18 pertsonak bete dituzte ikerketaren galdetegiak, eta 16k parte hartu dute elkarrizketan.

Hainbat tresna kuantitatibo erabiltzen dira Programa osatzen duten pertsonen ongizate psikosoziala eta horren eragin ekonomikoa neurtzeko:

- Lehenik eta behin, Programan parte hartzen duten pertsonen profila ezagutzeko, galdetegi orokor bat pasatu zaie.
- Bigarrenik, parte-hartzaileen gizarteratzearen gaineko eragina neurtzeko, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-bazterketa Baloratzeko Tresna Tekniko Komuna (2012) erabili da. Tresnari hainbat item gehitu zaizkio, Bizitza Independentearen Foroak (2008) proposaturako adierazleetan oinarrituta, bai eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko ikertzaileek eta elkartuko langileek elkarrekin egindako esperientziaren eta hausnarketaren ondoriozko beste batzuk ere.
- Hirugarrenik, Bizitza Independenteterako Programak ongizate psikologikoa nola eragiten duen neurtzeko, psikopatologia eta osasun positiboa neurtzen dituzten hainbat tresna erabili dira. Hauek dira psikopatologia neurtzeko tresnak: BDI-II Beck Depression Inventory-Second Edition (Beck *et al.*, 1996) eta General Health Questionnaire (GHQ-12) (Goldberg eta Williams, 1988); eta osasun mental positiboa neurtzeko tresnak: Satisfaction With Life Scale / Bizitzarekiko Gogobetetze-eskala (SWLS) (Diener *et al.*, 1985), Mental Health Continuum Short Form (MHC-SF) (Keyes, 2005) eta Ryff-en ongizate psikologikoko eskalen ingurunea menderatzea (Ryff, 1989; Riff eta Singer, 2013).
- Laugarrenik, Programaren eragin ekonomikoa neurtzeko, metodologia *social return on investment* (SROI) delakoan oinarritzen da. Narrillos-en arabera (2012), erakunde batek sortutako gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-balioak ulertzeko, neurtzeko eta komunikatzeko prozesua da. Hau da, enpresa edo jarduera batek sortutako inpaktu

soziala neurtzeko balio duen tresna bat da, proiektuaren inpaktu desberdinei diru-balio jakin bat esleitzen. Horrela, kostu-mozkin azterketa bat egin da, Programa gauzatzean sortzen den balio soziala hura gauzatzeko behar den inbertsioarekin alderatzeko. Parte-hartzaileek galdetegi bat bete dute desgaitasunari eta kontsumo-gastuei buruzko hileko gastu espezifikoiari buruz. Gipuzkoako Foru Aldundiak prestazio eta laguntzen zenbatekoari buruzko zenbait datu ekonomiko eman ditu.

Datuen tratamendua SPSS estatistika-programaren bidez egin da, eta programa horretara inportatu ziren Excel tauletan erregistraturako datuak. Bildutako datuak egiaztatzeko eta arazteko hainbat prozesu egin ziren, haiek landu aurretik. Gizarte- eta psikologia-esparruko aldagaiak sexuaren eta desgaitasun motaren aldagaiekin gurutzatu dira, eta aztertutako aldagaiak sexuaren (emakumea edo gizona), eta desgaitasun motaren (sortzetikoa edo gerora sortutakoa) arabera zer neurritan zituen aldeak jakin da. Ikerketak arreta berezia eskaini dio genero-azterketari, ateratako datuetatik abiatuta.

Bestalde, erdi-egituraturako 16 elkarrizketa indibidual sakon egin dira, eta, horiei esker, informazio subjektiboa jaso ahal izan da programarako sarbideari, laguntza-baliabideei, administrazioarekiko harremanari, programaren balorazioari eta parte-hartzaileek hobetzeko proposamenei buruz. Bildutako informazioa egoera azterketako AMIA (aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak) matrize batean antolatu da. Horrek Programaren onurak eta mugak identifikatzeko aukera ematen du, barnekoak zein kanpokoak, parte-hartzaileen arabera.

6. Parte-hartzaileen profil soziodemografikoa

Ikerketatik ateratako datuek adierazten dute Programa erabiltzen duten pertsonak 31 eta 64 urte bitarteko gizonak (% 55,6) eta emakumeak (% 44,4) direla. 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi da % 94. Taldea nahiko antzekoa da desgaitasun motari dagokionez; sortzetiko desgaitasuna dutenen ehunekoa handiagoa da (% 55,6), eta geroago sortutako desgaitasuna, berriz, % 44,4. % 75-100eko desgaitasun-maila aitortua dute pertsonen % 94,4k, eta % 72,2k gorpil-aulkia erabiltzen dute. Aitortutako mendekotasun-mailari dagokionez, handia da: III. maila % 44,4k eta II. maila % 44,4k. Emakume gehiagok (% 63,5) dute mendekotasun handia (III. maila) gizonen baino (% 30). Sortzetiko desgaitasuna duten pertsonen mendekotasun-maila handiagoa dute gerora sortutako desgaitasuna dutenek baino.

Nahiko antzekoa da, halaber, ezkontuta dauden edo bikotekidea duten pertsonen (% 44,4) eta ezkongabeen kopurua (% 56,6), azken hau pixka bat handiagoa. Ezkontide edo bikotekidearekin bizi diren pertsona guztiak sortzetiko desgaitasuna dutela, eta bakarrik bizi diren pertsonen artean, % 66,7 emakumeak direla. Inork ez du eguneko

zentrorik erabiltzen. % 77 jabetzako etxebizitza batean bizi da. Gainerakoak alokairuan bizi dira, eta bat tutoretzapeko apartamentuan. Pertsonen % 55,6k bizitza independentearen eredura sartzea lortu ahal izan zuten, babes publikoko etxebizitzan esleipendun izan ondoren. Haien diru-sarrerak Bizitza Independenterako Programatik soilik datoz kasuen % 44,4an, eta laguntzaile pertsonalenzako prestazio ekonomikoarekin (LPEP) edota etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin (ELZ) batera % 56,6an.

Programako pertsona guztiek amaitu dute ikasketak mailaren bat. Lortutako prestakuntza-maila % 38,9, % 27,9 eta % 33,3 da, hurrenez hurren, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta goi-mailako ikasketetan. Nabarmentzekoa da desgaitasuna duten pertsonen kopurua handia dela soilik lehen hezkuntza amaitu dutenen artean (% 71,4), eta handiagoa dela soilik lehen hezkuntza egin duten emakumeen ehunekoa (% 57,1).

Guztiak dira pentsiodunak, eta haien pentsioak norberaren edo guraso baten lan-ekarpenetik datoz (umezurtz-pentsioa). Bat ere ez da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuraduna, eta horrek agerian uzten du diru-sarrera baxuagoak dituztenek zaila dutela Bizitza Independenterako Programa eskuratzea. Horien diru-sarrerak, kasuen % 61,1ean 1.500 eurotik gorakoak dira, % 27tan, 1.000 eta 1.500 euro bitartekoak, eta % 11,2an 1.000 eurotik beherakoak. Errentarik handienak, 2.000 eurotik gora, gizonak jasotzen dituzte kasuen % 80an, eta sortzetiko desgaitasuna duten pertsonen % 80an.

Bizitza Independenterako Programarako sarbidea elkartuk emandako informazioaren bidez izan zen kasuen % 44,5ean. Eskaera ez zen konplexua izan pertsonen % 56rentzat, baina bai % 44,4rentzat, eta horrek laguntza handiagoa eskatzen du behar duten pertsonentzat. % 61,1ek laguntzarik gabe egin zuten Bizitza Independentearen Proiektua, eta gainerakoek, berriz, elkarturen, beste laguntza batzuen eta gizarte-zerbitzuen laguntzarekin.

Asistentzia pertsonalaren estaldurari dagokionez, kasuen % 78an pertsona fisikoa da, eta % 22an, enpresa. % 55,5ek hainbat laguntzaile pertsonal ditu, batez ere sortzetiko desgaitasuna dutenak, eta % 44,4k pertsona bakarra du, gehiago gerora sortutako desgaitasuna dutenak. Laguntzaile pertsonalaren ordainketa finantzatzeko prestazioaren estaldura hilean 2.000 euro baino gutxiagokoa da kasuen % 83,3an. 1.000 eurotik beherako prestazioa jasotzen dutenen artean, % 77,8k gerora sortutako desgaitasuna du. Parte-hartzaileen % 88,9k ezin du erabat ordaindu laguntza pertsonaleko zerbitzuaren kostua Bizitza Independenterako Programaren bidez.

Laguntzaile pertsonalaren kontratazioa bere bitartekoen bidez egin da kasuen % 55,6k, eta gainerakoa elkarturen, gizarte-zerbitzuez eta beste batzuen laguntzarekin. Laguntzen xedea da etxean bertan eta eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan beharrezkoak diren jarduerak eta etxetik kanpokoa

(% 77,8). Horrela, pertsonen parte-hartzea eta gizarteratzea bultzatzen da. % 77,8k 4 ordu baino gehiagoko laguntza pertsonala behar du egunean. Horien artean, % 44,5ek 8 ordu baino gehiagoz edo 24 orduz behar du laguntza. Laguntzaile pertsonal gehienak emakumeak dira, nahiz eta batzuk gizonetakoak izan, neurri berean jatorri nazionalekoak zein atzerritarrek, eta titulazio soziosanitarioa dute gehienetan, gizarteratzea besteetan. Pertsonen % 68,8k laguntzailez aldatu du inoiz, eta horren arrazoia zereginak behar bezala ez betetzea izan da. % 50ek gatazkak izan ditu laguntzailearekin arrazoi horregatik, eta laguntza eskasa izan dute mota horretako gatazkak konpontzeko sarearen aldetik; izan ere, arazo hori garrantzitsua da bere ongizate psikosozialerako.

Programako parte-hartzaileek duten laguntza-sarearen barruan, kanpoko aholkularitza profesionala nabarmentzen da kasuen % 33,3an, eta ordainpeko zerbitzua da, lan- eta zerga-kontuetarako. % 22,3k, berriz, elkarturen eta beste zerbitzu batzuen laguntza jasotzen du, eta % 44,4k ez du laguntza formalik gai horietarako. Bizitza Independenterako Programan parte hartzen duten pertsonen % 38,9k soilik du haremana beste autonomia-erkidego batzuetan pertsonen programetan parte hartzen duten pertsonekin.

7. Programak gizarteratzean duen eragina

Bizitza independenterako eskubideak dimentsio bikoitza du: alde batetik, norbanakoarena (modu independentean bizitzeko eskubidea), norberaren emantzipaziorako eskubide gisa ulertua, sarbideak eta aukerak ukatu gabe; bestetik, soziala (komunitatean sartzeko eskubidea), ingurune inklusiboak sortzeko eskubide gisa ulertua. Hori dela eta, funtsezkoa da Bizitza Independenterako Programan parte hartzen duten pertsonen lortu duten gizarteratze-maila aztertzea, ikuspegi multidimentsional batetik ulertuta. Horrela, bizitza independentearen ereduaren helburu nagusia betetzen ote den ebaluatuko da, hau da, desgaitasuna duten pertsonen komunitatean duten erabateko inklusioa eta parte-hartzea.

Horretarako, ebaluazio-proiektuak, gizarte-eremu honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan legez aintzatetsitako tresna objektibo bat baliatu du, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna, parte-hartzaileen gizarteratze-/bazterketa-egoera zehazteko, bai eta aztertu beharreko dimentsio bakoitzaren eragin-maila zehazteko ere. Datuek erakusten dute 16 pertsona (% 88,9) gizarteratze-egoeran daudela eta 2 pertsona (% 11,1) gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran, nahiz eta horietako inor ez dagoen gizarte-bazterkeriako egoeran. Era berean, adierazi behar da sexuaren eta desgaitasun motaren aldagaiek ez dutela, balorazio-prozesuaren azken emaitzan, desberdintasun nabarmenik markatzen gizarteratze-egoeretan edo gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeretan.

Era berean, garrantzitsua da aipatzea gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeraren balorazioa duten pertsonak gizarteratetik oso hurbil daudela, eta, beraz, egoera pertsonalean eta sozialean aldaketa txiki bat eginez gero, autodeterminazio eta parte-hartze sozial handiagoko errealitate batera igarotzeko aukera izan dezaketela. Bizitza Independentearen Programaren ebaluazio-proiektuan diagnostikatu beharreko bizi-eremuen azterketatik ondorioztatzen denez, eragin handiena duen eremua osasun-, lanerako ezintasun-, desgaitasun- eta mendetasun-egoerekin lotuta dago, eta alderdi horiek Bizitza Independentearen Programan parte hartzen duten pertsonen ezaugarri atxikita daude, eta beste eremu batzuetan ere eragin txikia dute, hala nola arlo ekonomikoan, okupazionalan, bizitegian, hezkuntzan, prestakuntzan edo gaikuntzan.

Azkenik, adierazi behar da Bizitza Independentarako Programaren ebaluazio-proiektuan diagnostikatu beharreko bizi-eremuen azterketatik ondorioztatzen dela eragin handiena duen eremua osasunarekin, lanerako ezintasunarekin, desgaitasunarekin eta mendekotasunarekin lotuta dagoela, eta alderdi horiek Bizitza Independentarako Programan parte hartzen duten pertsonen ezaugarri atxikita daudela, eta beste eremu batzuetan ere eragin txikia dutela, hala nola ekonomian, okupazioan, egoitzetan, hezkuntzan, prestakuntzan edo gaikuntzan.

Hori nahitaez lotu behar da desgaitasuna duten pertsonen gizarte-bazterketako egoerari buruz egin diren beste azterketa batzuekin. Hala, elkartu 2015ean egindako *Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharrazanei buruzko azterketa-diagnostikoa* txostenean, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarteratze-/bazterketa-maila ere jorratzen zen, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren aplikazioaren bidez. Datu horien arabera, % 33,3 gizarte-bazterketako egoeran zeuden, % 36,3 gizarte-bazterketako arriskuan, eta % 30,4 gizarteratze-egoeran.

Bestalde, Foessa Fundazioak argitaratu zuen *Espainiako bazterketari eta gizarte-garapenari buruzko VIII. txostenaren* (2019) metodologia etxekoan unitateen lagin adierazgarri bati buruzko etxeko inkesta batean oinarritzen da, eta hiru ardatz, zortzi dimentsio eta 37 adierazle zehatz hartzen ditu kontuan bazterketa- eta gizarteratze-egoerak aztertzeko; zera aipatzen du:

Desgaitasuna duten pertsonen % 30 gizarte-bazterkeriako egoeran daude, eta % 16 gizarte-bazterketa larrian, desgaitasunik ez duten pertsonen bikoitza. Bazterketa-tasa handiagoa ez ezik, problematika-metaketa handiagoa ere nabarmena da. Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eta desgaitasuna duten pertsonen % 55,4 bi dimentsiotan edo gehiagotan daude, eta ehuneko hori 9,6 puntu txikiagoa da desgaitasunik ez duten pertsonen kasua (Fernández Maíllo *et al.*, 2019: 259).

8. Programak maila psikologikoan duen eragina

Eskuarki, "osasun mentala" eta "gaixotasun mentala" edo "psikopatologia" terminoak modu baliokidean erabiltzen dira: osasun mental egokia sintoma psikopatologikorik ez izatean datza, edo, bestela esanda, pertsona batek buruko gaixotasunaren sintomarik edo zantzurik agertzen ez badu, pertsona hori mentalki edo psikologikoki osasuntsu dagoela esaten da. Osasun mentala sintoma psikopatologikorik eza dela ulertzen duen ikuspegi horri osasun "mentalaren ikuspegi psikopatologikoa" deritzo.

Hala ere, Osasunaren Mundu Erakundeak (2004: 12) definizio hau proposatu du osasun mentalarentzat: "ongizate-estatu, non gizabanakoak bere trebetasunak gauza ditzakeen, bizitzaren estres normalari aurre egin diezaiokkeen eta bere komunitateari ekarpena egiteko gai den". Definizio horrek "osasun mental positiboaren ikuspegia" islatuko luke (Westerhof eta Keyes, 2010); izan ere, definizio horren arabera, osasun mentala ez da psikopatologiarik eza soilik, pertsonaren funtzionamendu psikologiko eta sozial osoa baizik.

Bi ikuspegiak alderatuz gero, lehenengoak gaixotasun mentalaren izaera, kausak eta tratamendua ditu ardatz, eta osasun mental positiboak, berriz, pertsona bat mentalki osasuntsu egotera daramaten kondizio psikologiko eta sozialen gainean jartzen du arreta. Bizitza Independentearen Programaren ebaluazio psikologiko/klinikoa, osasun mentalaren bi ikuspegiak jaso dira, eta, horretarako, eremu psikopatologikoko eta osasun mental positiboko tresnak erabili dira, ikerketa-proiektuaren metodologiari buruzko atalean adierazi den bezala. Jarraian, tresna bakoitzaren arabera lortutako datu nagusiak adieraziko ditugu:

- Lehenik eta behin, Beck BDI II Depresio Inbentarioa (BDI-II) aplikaturik, BDI-IIko batez besteko puntuazioa 5,72koa izan zen ($\sigma = 6,71$), puntuazio nabarmen baxua. BDI-IIren Espainiarako baliozkotzean, laginaren batezbestekoa 9,4 puntukoa izan zen, gure azterketako parte-hartzaileek lortutako emaitzaren gainetik, argi eta garbi. Adimen-desgaitasuna duten pertsonekin egindako ikerketa batean, BDI-IIren batezbestekoa 14,06 puntukoa izan zen, eta desgaitasun fisikoa duten pertsonekin egindako beste ikerketa batean, 11,69 puntukoa (Lindsay eta Skene, 2007; Secinti *et al.*, 2017).
- Bigarrenik, Goldbergen osasun orokorrari buruzko galdetegiaren 12 itemeko bertsioa erabiliz, laginaren batezbesteko orokorra 12,72 izan zen ($\sigma = 5,91$). Batezbesteko hori biztanleria orokorraren batezbestekoa baino zertxobait altuagoa da. Espainian biztanleria orokorraren lagin batekin egindako azterlan batean, GHQ-12ren batezbestekoa 8,52 izan zen (Sánchez-López eta Dresch, 2008), eta parte-hartzaile gazteekin egindako beste azterlan batean, berriz, are txikiagoa: 3,7 (Montazeri *et al.*, 2003).

- Hirugarrenik, Bizitzarekiko gogobetetze-eskala aplikaturik, bizitzarekiko gogobetetze-eskalak pertsonak bere bizitzarekiko duen gogobetetze-maila orokorra neurtzen du. Aztertutako laginean, bizitzarekiko gogobetetzea 17,22koa izan zen ($\sigma = 4,94$). Puntuazio horrek gogobetetze-maila nahiko altua adierazten du. Konparatzearen, Espainiako biztanleria osoaren lagin batean bizitzarekiko gogobetetze-maila 16,85 izan zen (Vázquez *et al.*, 2013).
- Laugarrenik, osasun mentalaren kontinuumaren bertsio laburraren emaitzei (MHC-SF) dagokionez, eskala orokorraren puntuazioa 51,05 izan zen ($\sigma = 10,86$). Espainiari dagokionez, batez besteko puntuazioa 56,29koa izan zen ($\sigma = 11,57$). Datu horiek ikusita, ondoriozta daiteke aztertutako laginaren MHC-SFren puntuazio orokorra Espainiako biztanleria orokorrarena baino pixka bat txikiagoa dela.
- Bosgarrenik, Ingurunea menderatzeari dagokionez, ingurunea menderatzeak norbanakoak bere eguneroko ingurunea gobernatzeko duen gaitasuna aztertzen du. Gure laginaren batezbestekoa 43,72koa izan zen. Espainian adinekoekin egindako azterlan batean, batezbestekoa 42,36 izan zen (Villar *et al.*, 2005), gure laginaren emaitzaren azpitik. Beraz, zalantza bada ere, esan dezakegu Bizitza Independenterako Programan parte hartzen duten eta ebaluazio honetan parte hartu duten pertsonen beren ingurunea era egokian menderatzen dutela.

Oro har, esan daiteke aztertutako laginak osasun mental altua erakutsi duela, bai psikopatologiari dagokionez, bai osasun mental positiboari dagokionez. Alde psikopatologikoan, parte-hartzaileek depresio-, antsietate- eta estres-maila nahiko baxuak erakutsi dituzte. Laginaren heren batek depresio- eta antsietate-puntuazio esanguratsuak lortu zituen, baina, lehen esan bezala, hori biztanleria orokorrean ere gertatzen da. Are gehiago, pentsa liteke desgaitasunak psikopatologia-maila handiagoa eragin beharko lukeela biztanleria orokorrarekin alderatuta, baina hori ez da gertatzen, aztertutako laginean behintzat.

Osasun mental positiboari dagokionez, parte-hartzaileek osasun mental positibo erlatiboki altua erakutsi dute. Bai bizitzarekiko gogobetetzean, bai ongizate emozional, sozial eta psikologikoan eta bai ingurunea menderatzean, puntuazioak altuak izan dira. Berriz ere, pertsona batzuek osasun mental positibo baxua erakutsi dute, biztanleria orokorrean gertatzen den bezala. Era berean, egiaztatu ahal izan da psikopatologia eta osasun mental positibo batera kontuan hartzen direnean, parte-hartzaile gehienak osasun mental osoaren koadranteetan kokatu direla.

Programaren eraginaren ebaluazio kliniko/psikologikoaren emaitza guztiak batera kontuan hartuta, esan dezakegu, salbuespenak salbuespen, programa honetan parte hartzen duten pertsonen osasun mentala biztanleria osoaren antzekoa eta egokia dela.

9. Inbertsio ekonomikoari buruzko programaren eragina

Azterketa honen bidez, Bizitza Independenterako Programaren eraginaren balorazio ekonomikoa egin nahi da, edozein laguntza-programaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioak denboran zehar duen jasagarritasunari buruzko erabakia baldintzatzen baitu beti. Horretarako, *social return on investment* (SROI) metodologia erabili da, hau da, "erakunde batek sortutako gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-balioak ulertzeko, neurtzeko eta komunikatzeko prozesua" (Narrillos, 2010: 34). Aplikazioaren azken emaitza koefiziente bat kalkulatzeko datza, aurreikusitako jardueri edo programei esker sortutako balio soziala alderatuta, hura abiarazteko erabilitako finantzaketari dagokionez. Koefizientea unitatea baino handiagoa/txikiagoa den kasuetan, esan daiteke fenomenoaren balio soziala eskatutako finantzaketa baino handiagoa/txikiagoa dela (Andrich eta Caracciolo, 2007; Ardivison *et al.*, 2013).

Zenbatespena aldagai multzo batean oinarritu da, eta aldagai horiei urteko gastuen zenbatespena aplikatu zaie, bai eta Administrazio Publikora (kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundira) itzultzean ere, zerga-bilketaren (PFEZ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta BEZ Balio Erantsiaren gaineko Zerga), gizarte-segurantzako kotizazioen eta ikusitako fenomenoaren ondoriozko aberastasun-ekarpenaren bidez.

Kontuan hartutako aldagaiak bi motatakoak izan dira:

- Programan parte hartzen duten pertsonentzat diru-sarrera bat dakartenak: 1) Gipuzkoako Foru Aldundiak bizitza independentearen programan inbertitutako aurrekontua; 2) Gipuzkoako Foru Aldundiak bizitza independentearen programa zeharka finantzatzen duten beste programa batzuetan inbertitutako aurrekontua; kasu honetan, laguntzaile pertsonalenzako prestazio ekonomikoa, laguntza teknikoak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua hartzen dira kontuan; 3) Enplegua: erabiltzaileak enpleguaren bidez lortutako diru-sarrerak.
